

Komunikazio Gaitasunaren Garapena –Euskara eta Gaztelania- Lehen Hezkuntzan I



Ikasle Kaiera

Aintzane Etxebarria



LEHEN ENTREGAGAIA: IKASGAIAREN TESTUINGURUA ETA BALIZKO PROIEKTUA

1. IKASGAIAREN TESTUINGURUA

Gaur egun hizkuntza komunikazio-tresnatzat hartzen da, eta hizkuntzaren nahiz testuinguru soziokulturalaren arteko loturak gero eta garrantzi handiagoa du; hizkuntza komunikaziorako tresnarik eraginkorrena den heinean, hiztunen komunikazio-gaitasunak ere garrantzia hartu du, batez ere irakasleen komunikazio gaitasunak, izan ere, irakaslearen lana irakastea da, eta irakastea komunikatzea da.

Gaur egungo irakaslearen lana ez da kontzeptuen eta ezagutzaren transmisio soila, irakasleak gidatzaile dinamikoa izan behar du ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza eremuan. Hortaz, irakasleak era egokian komunikatzeko zer esan, eta batez ere, nola esan eta zer baliabide erabili horretarako izan behar du kontuan. Tradizioari begira, irakaslearen jardun-esparru gehienak ikasgelan izaten ziren, eta alde batera uzten ziren familiekiko elkarrizketak eta beste profesionalekin izan beharreko harremanak. Baina Eusko Jaurlaritzak 1997an argitaratu zuen *Irakaslearen Euskalduntzea* lanean zehazten denez, irakasleak izan beharreko komunikazio gaitasuna hiru alorretan kontuan hartu beharko litzateke:

- Irakasle-irakasle edota beste profesionalen arteko hezkuntza-komunikazioan.
- Irakaslearen eta ikaslearen arteko hezkuntza-komunikazioa.
- Irakasleen eta familien edota tutoreen arteko hezkuntza-komunikazioa.

Jardun-esparru horietan adierazi/komunikatu beharrekoa ezberdina izan daiteke testu-mota eta trebetasuna (ahozkoa/idatzizkoa) kontuan izanik; esaterako, ahozko trebetasuna kontuan izanik, irakaslea gai izango da irakasle-ikasle harremanean ahozko testua sortzeko (azalpena, narrazioa, jarraibidea...), baina, ere berean, irakasle-irakaslea/zentroa erlazioan, irakaslea gai izango da elkarrizketa informalak nahiz formalak izateko, eta azkenik, irakaslea-familiak harremanean gai izango da ikaslearen prozesuaren berri emateko, aholkuak emateko, urteko plangintza azaltzeko eta abarrerako. Beti ere, kontuan izanik testuen ezaugarri komunak (kohesioa, koherentzia, zuzentasuna, egokitasuna, aurkezpena) eta bereziak.

Ondorioz, irakasleak etengabeko prestakuntzan komunikazio-gaitasuna garatu behar du, berau izango baita dituen lanak, harremanak eta betebeharrak era egokian burutzeko oinarrizko gaitasuna.

a) Graduko dokumentutik ateratako ikasgaiaren datu orokorrak:

IKASGAIAREN IZENA:	KOMUNIKAZIO GAITASUNAREN GARAPENA —EUSKARA ETA GAZTELANIA— LEHEN HEZKUNTZAN I			
TITULAZIOA:	LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA			
KURTSOA ETA LAUHILABETEA:	LEHEN KURTSOKO LEHENENGO LAUHILABETEA			
ETCS KREDITU KOPURUA:	6			
MODALITATEA ETA ORDU PRESENTZIALAK NAHIZ EZ PRESENTZIALAK ASTEKA:	IKASGAI PRESENTZIALA DA, ORDU PRESENTZIALAK ETA EZ PRESENTZIALAK HONAKO TULAN ADIERAZTEN DIRA:			
	ORDU PRESENTZIALAK			ORDU EZ PRESENTZIALAK
	MAGISTRALA	GELA-PRAKTIKAK	MINTEGIAK	6
Ordu bat eta erdi	Ordu bi	Bost ordu lauhilabeteko osoan aste bitan banatuta.		

Gaitasunak:

Kurtso honetan ikasleak garatuko dituen gaitasunak graduaren ardatzak kontuan izanik, honakoak dira:

	1. Ikasturtea	Graduaren ardatzak
1G	Lehenengo Hezkuntzako eskola ezagutzea eta kokatzea egungo hezkuntza-sisteman, gure testuinguruan, Europako testuinguruan eta nazioartekoan jarduera berritzaileak ezagutzeko eta alderatzeko eta balioen hezkuntzan arreta jartzeko.	1. TESTUINGURUA ZEHAZTEA
2G	Tutorearen eta orientatzailearen eginkizunak identifikatzea eta egiten jakitea, ikasle bakoitzak bere inguruarekin duen harremana balioetsita eta gatazken konponbide baketsuaren alde eginda.	2. BEHAKETA ETA ANALISIA
3G	6-12ko tartean hezkuntza-prozesuen eta ikaskuntzaren oinarriko printzipioak ulertzea eta aplikatzea familia-, gizarte- eta hezkuntza-testuinguruan, informazioa bilatzeko eta erabiltzeko tekniken bidez.	3. ULERTZEA ETA EZARTZEA
4G	Etapako curriculum arloen oinarriko printzipioak ezagutzea eta aztertzea banaka nahiz taldeka, EAEko bi hizkuntza ofizialetan eskuratutako oinarriko komunikazioa eta hizkuntza gaitasunak erabilia.	4. KOMUNIKAZIOA ETA ARLOAK

Ikasgaiko gaitasunak hauexek dira:

IKASGAIAREN GAITASUNAK	KURTSOKO GAITASUNAK			
	1G Testuingurua zehaztea	2G Behaketa eta analisia	3G Ulertzea eta ezartzea	4G Komunikazioa eta arloak
Testuinguru akademikoko testu idatziak eta ahozkoak aztertzea, ulertzea eta sortzea				X
Lehen Hezkuntzako ikasgelako errealitate soziolinguistikoaren eta soziokulturalaren ezaugarri oinarri hartuta , testu idatziak nahiz ahozkoak sortzea	X			
Informazioa banaka edo elkarlanean bilatzea, ulertzea, interpretatzea, sortzea, banatzea eta ebaluatzea. Horretarako beharrezkoak diren estrategia kognitiboak, metakognitiboak, sozialak eta afektiboak erabiliz.			X	
Komunikazio Gaitasunak Curriculumeko beste oinarrizko gaitasunekin nahiz Lehen Hezkuntzako arloekin duen lotura zehaztea	X			
Gogoz eta arduraz erabakiak hartzea nahiz lankidetzan aritzea, horretarako beharrezkoa da irakasleak dituen lan-esparru ezberdinetako eginkizunak identifikatzea eta gatazka egoeretan elkarriketara jotzea		X		

Ikasgaiko gaitasun orokorrak, espezifikoak, helburuak eta ikaskuntza emaitzak taula honetan adierazten dira:

IKASGAIAREN GAITASUN OROKORRAK	IKASGAIAREN GAITASUN ESPEZIFIKOAK	HELBURUAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
<p>1. Testuinguru akademikoko testu idatziak eta ahozkoak aztertzea, ulertzea eta sortzea</p>	<p>1.1.Hizkuntzaren inguruko gogoeta egitea, hizkuntzalaritzaren alorreko kontzeptuak kontuan izanda.</p> <p>1.2.Testu-mota ezberdinak kontuan izanda, ezaugarri linguistikoen eta diskurtsiboen jabe izatea</p>	<p>1.1.1.Komunikazio gaitasunaren inguruko oinarrizko kontzeptu linguistikoak ulertzea eta bereiztea</p> <p>1.2.1.Egoera komunikatibo ezberdinetan ahozko nahiz idatzizko testu egokiak sortzea</p>	<p>1.1.1.1. Irakaslearen jardun-esparruen ezaugarriak adieraztea.</p> <p>1.1.1.2. Jardun-esparru bakoitzerako ahozko/idatzizko testu-moten sailkapena egitea eta bakoitzaren helburu komunikatiboa zehaztea eta ezaugarri orokorrak aipatzea.</p> <p>1.1.1.3. Haurrekin eskolan erabiliko dituzten testu-mota bakoitzaren ezaugarri propioak zehaztea. (ezaugarri propioak)</p> <p>1.2.1.1. Zehaztutako ezaugarrien araberako testu-motak sortzea.</p> <p>1.2.1.2. Sortutako testu-motekin ikasgelan zer egin daitekeen zehaztea.</p> <p>1.2.1.3. Ahozko azalpena/aurkezpena.</p> <p>1.2.1.4. Ikasleen gurasoei gutuna idaztea.</p>
<p>2.Lehen Hezkuntzako ikasgelako errealitate soziolinguistikoaren eta soziokulturalaren ezaugarriak errespetatuta nahiz oinarri hartuta, testu idatziak nahiz ahozkoak sortzea</p>	<p>2.1.Hizkuntza bariazioa nahiz ikasgelako hizkuntza ezberdinak identifikatzea eta onartzea</p> <p>2.2.Ahozko nahiz idatzizko testuak sortzea egoerara eta errealitatera moldatuz</p>	<p>2.1.1.Hizkuntza bariazioa ikasgelako komunikazio-sareen baliabide multzoaren zati dela ulertzea</p> <p>2.1.2.Lan-esparru ezberdinetako hizkera kontuan izatea eta erabiltzen jakitea: haurrekin, gurasoekin nahiz gainerako irakasleekin.</p>	<p>2.1.1.1.Hizkuntza bariazioa identifikatzea</p> <p>2.1.1.2.Hizkuntza bariazioa onartzea</p> <p>2.1.2.3.Hizkuntza bariazioak ikasgelako mikrokomunitateari egiten dion ekarpena ulertzea</p> <p>2.1.2.1. Haurrentzako testuetan agertu beharreko haur-hizkeraren ezaugarriak ulertzea, bereiztea eta erabiltzea. (ezaugarri orokorrak)</p> <p>2.1.2.2.Lan-esparrua kontuan izanik zer hizkera-mota erabili behar duen</p>

			jakitea
<p>3. Informazioa banaka edo elkarlanean bilatzea, ulertzea, interpretatzea, sortzea, banatzea eta ebaluatzea. Horretarako beharrezkoak diren estrategia kognitiboak, metakognitiboak, sozialak eta afektiboak erabiliz.</p>	<p>3.1. Informazioa iturri ezberdinetatik jasotzea, ulertzea, interpretatzea, banatzea eta ikasgelakoa osatzea era kritikoan eta lankidetzan.</p> <p>3.2. Beharrezkoak diren ikas estrategiak aplikatzea informazioa osatzeko, banatzeko eta ebaluatzeko.</p>	<p>3.1.1. Ikasgelako informazioa osatzea kideen ekarpenak erabiliz.</p> <p>3.2.1. Ikaskuntza prozesuan beharrezkoak diren estrategiak aplikatzea testuetako informazioa ulertzeko, prozesatzeko, analizatzeko eta adierazteko.</p>	<p>3.1.1.1. Informazioa bilatzea</p> <p>3.1.1.2. Azalpenak ematea</p> <p>3.1.1.3. Ikasgelan landutakoa osatzea</p> <p>3.1.1.4. Kideek egindakoa ebaluatzea irizpide teorikoetan oinarrituz</p> <p>3.2.1.1. Ulertzeko, idazteko, bilatzeko, azaltzeko estrategiak aplikatzea</p>
<p>4. Komunikazio Gaitasunak Curriculumeko beste oinarrizko gaitasunekin nahiz Lehen Hezkuntzako arloekin duen lotura zehaztea</p>	<p>4.1. Komunikazio Gaitasunaren garrantzia azpimarratzen jakitea oinarrizko beste gaitasunak garatzean</p> <p>4.2. Komunikazio Gaitasunak Lehen Hezkuntzako alorrak ikasteen duen eragina ulertzea</p>	<p>4.1.1. Komunikazio gaitasuna hezkuntza-gaitasun orokorra dela ulertzea</p> <p>4.2.1. Komunikazio Gaitasunak Lehen Hezkuntzako alor ezberdinak ikasteko prozesuari eragiten diola ulertzea</p>	<p>4.1.1.1. Komunikazio Gaitasunaren garrantzia azpimarratzen jakitea</p> <p>4.1.1.2. Curriculumeko beste gaitasunekin duen lotura ulertzea</p> <p>4.2.1.1. Lehen Hezkuntzako alor ezberdinak ikasteen Komunikazio Gaitasunaren garrantzia azpimarratzea</p>

<p>5.Gogoz eta arduraz erabakiak hartzea nahiz lankidetzan aritzea, horretarako beharrezkoa da irakasleak dituen lan-esparru ezberdinetako eginkizunak identifikatzea eta gatazka egoeretan elkarrizketara jotzea</p>	<p>5.1.Testuinguru akademikoan nahiz komunikatiboan sortzen diren beharrianak identifikatzea, eta era arduratsuan erabakiak hartzea</p> <p>5.2.Lankidetzan aritzea atazak burutzeko.</p>	<p>5.1.1.Irakasle-lanak dituen eremu ezberdinetako beharrianak eta eginkizunak identifikatzea eta elkarrizketaren bidez konpontzea</p> <p>5.2.1.Gainerako pertsonen lekuan jartzen jakitea, gainerako pertsonen ideiak balioestea, elkarrizketatzea eta negoziatzea. Baita hartutako erabakiak behar bezala jakinaraztea eta lankidetzan-giroan eta malgutasunez lan egitea ere.</p>	<p>5.1.1.1.Irakasle-lanaren jarduera esparru ezberdinetako komunikazio-eremuak bereiztea.</p> <p>5.1.1.2. Irakasle-irakasle arteko komunikazioaren araberako ezaugarriak kontuan izanik, elkarrizketen bidezko erabakiak hartzea.</p> <p>5.2.1.1.Iritziak ematen jakitea.</p> <p>5.2.1.2.Lankidetzan aritzea eta kideen ideiak eta usteak balioestea.</p>
---	--	--	---

Ikasgaiaren gaitegia:

<p>1. Testuen eta diskurtsoen analisirako eta ekoizpenerako oinarritzko kontzeptuak.</p>	<p>Hizkuntza eta komunikazioa. Komunikazio gaitasuna. Diskurtsoa. Diskurtsoaren analisirako mailak. Testua eta testuaren ezaugarriak. Testu-motak. Alor akademikoko diskurtso-generoak.</p>
<p>2. Azalpen- eta argudio-testuak.</p>	<p>Azalpen-testua. Ezaugarriak, antolakuntza eta funtzioak. Diskurtso-prozedura. Argudio-testua. Ezaugarriak, antolakuntza eta funtzioak. Diskurtso-prozedura.</p>
<p>3. Ahozko ulermena eta adierazpena.</p>	<p>Ahozko komunikazioa. Ahozko komunikaziorako prozedurak. Ahozko ulermenerako mikrotrebetasunak. Ahozko adierazpenerako mikrotrebetasunak. Eremu akademikoko ahozko testuen ulermena, ekoizpena eta analisia: ahozko azalpenak, eztabaidak, aurkezpenak, txostenak, eta abar.</p>

4. Idatzizko ulermena eta adierazpena.	Idatzizko komunikazioaren ezaugarriak: hizkuntzako, testuko eta testuinguruko bereizgarriak. Alor akademikoan sortutako testuen diskurtso-ezaugarri garrantzitsuenak. Irakurketako prozesuak. Alor akademikoan idatzitako testuen ulermenerako estrategiak. Idatzizko testuak sortzea. Testuak ulertzeko prozesuak eta estrategiak. Hainbat testuren irakurketa ulerkorra eta kritikoa. Testu idatziak sortzea: txostenak, laburpenak, sintesiak eta abar.

Ebaluazio sistema:

Ebaluazioari dagokionez, batetik, irakasgaia osotasunean kontuan hartu behar da eta bestetik proiektua bera beren beregi.

A) Irakasgaia osotasunean kontuan hartuta:

Ikasgai honek alde ezberdinak ditu, eta proiektu hau ikasgaiaren zati bat da, alde bakoitzaren pisua honakoa da:

Modulu-lana: %16

Proiektuaren bidez lantzen ez den ikasgaiaren zatia: %19

Proiektua: %55

Jarrera eta parte-hartzea: %10

Oharra: Ebaluazio jarraituak alderdi guztietan maila egokia lortzea eskatzen du, honek berekin dakar ikasgaia gainditzea, eta beraz, gaitasunak eskuratzea.

Entregagai zenbakia, ebaluaziorako irizpideak eta ehunekotan duten pisua adieraziko da hurrengo taula honetan.

2. BALIZKO PROIEKTUA

Proiektuaren aurkezpena

Proiektu hau lehen lauhilabeteko osoan egitekoa da, hamabost astetan zehar, aste bakoitzean ordu bi ikasgelan bertan emango dira eta beste ordu bi ikasgelatik kanpo. Guztira, taldeko partaideak 4/5 izango direla kontuan izanda, 240/300 ordu emango dira proiektua egiten.

Horretarako, planteatuko den testuinguru honetan galdera nagusi bati erantzuna emango diote ikasleek, hain zuzen ere, honakoak izango dira galdera nagusia eta ikasleei planteatuko zaien testuinguru orokorra:

“Eskola publiko bateko Lehen Hezkuntzako irakasle-talde bat zarete eta UPV/EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika saileko AHODIKER ikerketa-taldeak, azken urteetan egin bezala, oraingoan ere Berrilingua Jardunaldiak antolatu ditu “Oinarrizko Gaitasunak eta testuak” gaiaren inguruan.

Jardunaldietara zenbait eskoletako irakasleak gonbidatu ohi dituzte urtero eskoletan egiten den lanaren berri emateko bai Bilboko Irakasleen Unibertsitate eskolako irakasleei bai ikasleei. Aurtengoetan zeuen txanda da, AHODIKER taldekoak eskolako zuzendaritzarekin jarri dira kontaktuan eta hogeit hamar minutuko hitzaldi bat ematera joateko gonbidatu zaituztete; eskolako zuzendariarekin hitz egin ondoren, zeuek joango zaretela adostu duzue.

Haur hezkuntzarako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako Dekretu Currikularraren arabera, Komunikazio Gaitasuna oinarrizko gaitasunetako bat izanik, ahozko nahiz idatzizko testuen bidez garatzen duzue eskolan Lehen Hezkuntzako hurrekin, eta beraz, erabiltzen dituzuen testu mota bakoitzaren ezaugarriak, sortzeko irizpideak, adibideak eta erabilera adieraziko dituzue. Gainera, irakasleen arteko bilerak egin eta erabakiak hartuko dituzue, eta ikasleen gurasoei jardunaldien berri emango diezue gutun baten bidez, beraiek ere jardunaldien berri izan, eta joateko aukera izan dezaten.”

Proiektuaren helburuak

Proiektuan ikasgaiaren gaitegia osorik landuko da era praktikoan, esan bezala, 240/300 ordutako proiektua izango da, ordu horiek ikasgelan bertan eta ikasgelatik kanpo beteko dira.

Proiektu honen bidez honako gaitasunak garatuz, taulan adierazten diren ikaskuntza-emaitzak lortuko dituzte ikasleek:

GAITASUNAK	IKASKUNTZA-EMAITZAK
1. Testuinguru akademikoan agertzen diren testuak aztertzea, prozesatzea eta sortzea.	<p>Irakaslearen jardun-esparruen ezaugarriak adieraztea.</p> <p>Jardun-esparru bakoitzerako ahozko/idatzizko testu-moten sailkapena egitea eta bakoitzaren helburu komunikatiboa zehaztea eta ezaugarri orokorrak aipatzea.</p> <p>Hurrekin eskolan erabiliko dituzten testu-mota bakoitzaren ezaugarri propioak zehaztea. (ezaugarri propioak)</p> <p>Zehaztutako ezaugarrien araberrako testu-motak sortzea.</p> <p>Sortutako testu-motekin ikasgelan zer egin</p>

	<p>daitekeen zehaztea.</p> <p>Aurkezpena.</p> <p>Ikasleen gurasoei gutuna idaztea.</p>
2. Lehen Hezkuntzako ikasgelako errealitate soziolinguistikoaren eta soziokulturalaren ezaugarriak errespetatuta nahiz oinarri hartuta, testu idatziak nahiz ahozkoak sortzea.	Haurrentzako testuetan agertu beharreko haur-hizkeraren ezaugarriak ulertzea, bereiztea eta erabiltzea. (ezaugarri orokorrak)
3. Informazioa banaka edo elkarlanean bilatzea, ulertzea, interpretatzea, sortzea, banatzea eta ebaluatzea. Horretarako beharrezkoak diren estrategia kognitiboak, metakognitiboak, sozialak eta afektiboak erabiliz.	<p>Informazioa bilatzea.</p> <p>Azalpenak ematea.</p> <p>Kideek egindakoa ebaluatzea irizpide teorikoetan oinarrituz.</p>
5. Gogoz eta arduraz erabakiak hartzea nahiz lankidetzan aritzea, horretarako beharrezkoa da irakasleak dituen lan-esparru ezberdinetako eginkizunak identifikatzea eta gatazka egoeretan elkarrizketara jotzea.	<p>Irakasle-irakasle arteko komunikazioaren araberako ezaugarriak kontuan izanik, elkarrizketen bidezko erabakiak hartzea.</p> <p>Lankidetzan aritzea eta kideen ideiak eta usteak balioestea.</p>

Proiektuak dituen faseak eta jarduera motak

Proiektu honek hiru fase izango ditu, lehen fasean, taldeen barneko antolamendua arautzeko jarduerak egingo dira, bigarren fasean proiektua bera garatuko da, eta hirugarren fasean, bukaera emateko aurkezpenak egingo dira. Hau guztia zehaztuta dago, hurrengo lerrootan.

1. fasea:
Taldeen barne-araudia zehaztuko duzue eta galdetegia diseinatuko duzue
Aktak nola egin erabakiko duzue.
Galdera nagusiak iradokitzen dizuenaz eztabaidatu eta taldean ondorio batera iritsiko zarete.
Taula bat aurkeztu: zer egin behar duzuen, horretarako beharrezkoak dituzuen pausuak eta materialak.
Eztabaidatik abiatuta ikaskuntza helburuen berri emango duzue: zer helburu lortu nahi da proiektu honekin?
2. fasea:
2.1. azpifasea:
Irakurketa indibiduala

<p><u>Puzzlea</u> eta eztabaida zuzendua: zer ezaugarri dituzte irakasleen jardun-esparru ezberdinek?</p>
<p>Informazio-iturriak zehaztu taldean</p> <p><u>Pecha-Kucha</u>: Jardun-esparruak, testu-mota ezberdinak eta bakoitzaren ezaugarri orokorra.</p> <p><u>Pecha-Kucharen</u> aurkezpen talde handian.</p>
<p>2.2. azpifasea:</p>
<p>Haur hizkera: Irakurketa indibiduala eta eztabaida.</p> <p><u>Haur-hizkera lantzeko ariketa indibidualak.</u></p>
<p>Zozketa: testu-mota ezberdinak banatu taldeen artean.</p> <p>Informazioa bilatu, jaso eta sintetizatu.</p> <p>Adituen bilera: bildutako informazioa komunean jarri eta zerrendatu irizpide-multzoen araberrako testuen ezaugarriak.</p> <p>Azalpen txikia: ikaskideen aurrean talde bakoitzak egindakoaren ezaugarriak biltzen dituen <u>iragarki</u> baten bidez <u>idea garrantzitsuena adieraziko dute.</u></p>
<p>Zehaztutako baliabideen (irizpideak eta haur hizkera) araberrako <u>testua</u> (ahozkoa nahiz idatzizkoa) sortu.</p>
<p>Taldeen arteko ebaluazioa: sortutako testua gainerako taldeek zuzenduko dute, horretarako, zenbait irizpide zehaztuta emango dizkie irakasleak.</p> <p><u>Ebaluazioaren berri eman eta zuzenketak egiteko.</u></p>
<p>Informazioa bilatu, jaso eta sintetizatu.</p> <p>Taldeko partaideen irakurketa indibiduala, bildutako informazioarena.</p> <p>Taldeko testu-motari dagokion helburu didaktikoa zehaztu.</p>
<p>Irakasleak jardunaldietara eramaten diren hitzaldien aurkezpenen ezaugarrien azalpena.</p> <p>Taldeetan jardunaldietan egin beharreko hitzaldiaren aurkezpena zehaztu.</p>
<p>Guraso eta familien arteko harremana: informazioa jaso ikus-entzunezko baliabideen bidez (irakasleak jarritako bideoa).</p> <p><u>Eztabaidatu</u>: Guraso eta familien arteko harremanean zer bai eta zer ez?</p> <p>Gutun-ereduak bilatu, aztertu eta egitura zehaztu</p> <p><u>Gurasoentzako gutuna</u> sortu</p>

Gurasoentzat sortutako gutuna talde ezberdinek ebaluatu

Taldeek ebaluatutako taldeei ebaluazioaren berri emango diete, zuzenketak egiteko.

3. fasea:

Jardunaldietako aurkezpena

Hautatutako aurkezpena eta arrazoien txostena.

Talde handian eztabaida gidatua: zein izan da onena?

Entregagaien zerrenda

Proiektuan zehar entregagai ezberdinak emango dira, hurrengo taula honetan zehazten dira:

ENTREGAGAI ZENBAKIA	TALDEKOA/BANAKAKOA	FASEA	MOTA	EBALUATZAILEA
1.Entregagaia	Taldekoa	1.fasea	Pecha-Kucha	Irakaslea
2.Entregagaia	Taldekoa	2.fasea	Iragarkia	Irakaslea
3.Entregagaia	Taldekoa	2.fasea	Testu zuzendua gehi helburu didaktiko zehatza	Ikasleak eta Irakaslea
4. Entregagaia	Taldekoa	2.fasea	Gurasoentzako gutuna	Ikasleak
5. Entregagaia	Taldekoa	3.fasea	Aurkezpena	Ikasleak eta Irakaslea
6.Entregagaia	Taldekoa	3.fasea	Aurkezpenik onenaren hautaketa arrazoitua	Irakaslea
7.Entregagaia	Taldekoa	3.fasea	Akten koadernoak, barruan aktak	Irakasleak

			eta galdetegia izango ditu ¹	
--	--	--	---	--

A) Proiektuaren ebaluazioari dagokionez

Proiektuaren ebaluazioa honako taula honetan zehazten diren atalen arabera egingo da:

ENTREGAGAI ZENBAKIA	EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK ²	EHUNEKOA
1. Pecha-Kucha	Errubrika	%10
2. Iragarkia	Errubrika	%10
3. Testu zuzendua gehi helburu didaktiko zehatza	Errubrika	%20
4. Gurasoentzako gutuna	Errubrika	%20
5. Jardunaldietako aurkezpena	Errubrika	%35
6. Aurkezpenik onenaren hautaketa arrazoitua	Kontrol-orria	%2,5
7. Akten koadernoak	Taldeen barne- araudian zehaztutako pausuak agertzea.	%2,5

Ikasleek proiektua gainditu ahal izateko ezinbestekotzat joko da lan guztietan parte hartzea (etortzen ez diren kasuetan justifikatu egin beharko da), eta eskoletan antolatzen diren jardueretan ere parte hartzea.

Entregagaiak epe barruan emango dira, denak ebaluatuko dira, eta irakasleak egoki deritzon kasuetan, entregagaien bertsio zuzenduak onartuko ditu, batik bat hizkuntza aldetiko zuzentasunari dagokionean, ezinbestekoa izango da entregagai guztiak gainditzea.

Erabiliko den materiala

Proiektua burutzeko behar izango diren baliabideak eta nor izango den eskuragarri jarriko dituen taula honetan zehazten da, eta ondoren, nahiz eta Moodlen ere kopia bat eskura izan, baliabideak agertzen dira:

¹ Baliabideen artean akten txantiloiredu bat ematen da, nahi izanez gero erabiltzeko.

² Ebaluaziorako irizpideak errubriken eta kontrol-orriaren bidez zehaztuta daude lan honen eranskinetan.

BALIABIDEAK	IKASLEA/IRAKASLEA
Irakurgai teorikoak: bibliografian zehazten direnak.	Batzuk irakasleak moodlen jarriko ditu ikasleek eskura izan ditzaten (hurrengo orrietan agertzen dira), beste batzuk ikasleak berak bilatu eta kontsultatu beharko ditu, beti ere, erreferentzia bibliografian izango du.
Txostenak (barne-araudiak, aktak, gutunak): Interneten eskolek argitaratutakoak, edota eskoletara bertara joanda utzitakoak.	Ikasleak eredutzat izango dituen txostenak eskuratu beharko ditu.
Testu-eredu errealak: Interneten argitaratuak edota eskolek errealitatean erabiltzen dituztenak.	Ikasleak Interneten eskura ditzake, horietako asko jada argitaratu egiten baitituzte eskola askok, baina nahi duten ikasleek aukera izango dute eskoletan eskatzeko.
Ariketa indibidualak	Irakasleak eskura jarriko ditu haur-hizkera lantzeko ariketa indibidualak.
Ikus-entzunezko materiala: bideoa	Irakasleak hautatuko du ikasleek lantzeko bideoa.

Bukaeran, metodo honekin ikasleak duen iritzia jasotzeko ERAGINek prestatutako bukaerako inkesta pasatuko da, ERAGIN tutoreak egindako txostena kontuan izango da, baita ikasleengandik jasotako emaitzak ere.

Erabilitako Eranskinak

- 1.Eranskina: Akten txantiloia
- 2.Eranskina: Irakasleen jardun-esparruei buruzko testua: Zer ezaugarri dituzte irakasleen jardun-esparru ezberdinek?
- 3.Eranskina: Pecha-Kucha ebaluatzeko errubrika
- 4.Eranskina: Haur-hizkera lantzeko testua eta ariketa indibidualak
- 5.Eranskina: Iragarkia ebaluatzeko errubrika
- 6.Eranskina: Testua ebaluatzeko irizpideak
- 7.Eranskina: Gurasoen eta familien arteko harremana: informazioa jasotzeko bideoa
- 8.Eranskina: Gurasoentzako gutuna ebaluatzeko errubrika
- 9.Eranskina: Jardunaldietako aurkezpena ebaluatzeko errubrika
- 10.Eranskina: Aurkezpenik onenaren hautaketa arrazoitua ebaluatzeko kontrol-orria (argudio-testua).

1. ERANSKINA: AKTEN TXANTILLOIA

TALDEKO AKTA		
Eguna:	Hasiera ordua:	Amaiera ordua:
Etorri direnak:		
Koordinatzailea:	Idazkaria:	
Zereginen planifikazioa:		
Egindakoaren deskribapena eta hartutako akordioak:		
Hurrengo egunerako oharrak:		
Sinadurak:		

2.ERANSKINA: IRAKASLEEN JARDUN-ESPARRUEI BURUZKO TESTUA: ZER EZAUGARRI DITUZTE IRAKASLEEN JARDUN-ESPARRU EZBERDINEK?

GARAY, U. eta ETXEBARRIA, A (2010): “Irakaslearen komunikazio-gaitasuna: hausnarketarako gaia”, *Uztaro*, 73. Bilbo: 39-48. -HABE (itzulpena) (2005): *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako*

Artikulutik honako orrialdeak irakurriko dituzte:

Horrenbestez, hausnarketarako puntuak hurrengoak izango lirateke:

- Irakasleek diskurtsoak bere eguneroko zereginetara moldatzeko landu behar dituzten trebetasunak.
- Irakaslearen komunikazio-gaitasunak izan beharreko ezaugarriak.

5. Irakaslearen komunikazioa: trebetasunetatik gaitasunera

Hezkuntza Legedian eta hezkuntza-arloan oro har egin diren azken berrikuntzak eredu demokratikoago baterantz zuzenduta daude, hori dela-eta, hezkuntza-eredu berriek eztabaidari ez ezik, komunikazioari ere garrantzia ematen diote, komunikazioan oinarritzea baita xede nagusia. Beraz, irakastea komunikatzea da, nahiz eta komunikazioak beti ez irakatsi (Méndez eta Gómez, 2009).

Hori horrela izanik, hezkuntzan, bere zentzunik eta orokorrean, eta Derrigorrezko Hezkuntzan batez ere, komunikazio kontzeptuak beste maila bat hartzen du, ez baita oinarritzen informazioa emate soilean, baizik eta hezkuntzan oinarritutako komunikazioak garrantzia hartzen du eta beste kontzeptu birekin hornitzen da: didaktikoa eta orientatzailea. Gainera, hiru funtzio nagusi hartzen ditu: informatzea, alde afektiboa bultzatzea, eta erregulatzea. Orain arteko igorle eta hartzaile dikotomia alde batera uzten da, bai irakasleak, bai ikasleak, bai familiak edota tutoreak igorleak eta hartzaileak dira. Hizkuntzak hartzen duen truke-funtzioa dela-eta, negoziazioa beharrezkotzat jotzen da hezkuntzaren esparru formalean.

Etengabe negoziatzen dira adierak eta negoziazio horretan mezuaren transmisioa ahalbidetzen duten jarrerak agertzen dira, jarrera horiek mezuari ezaugarri berezi batzuk abiskitzen dizkiote eta jasotzaileengan eragina dute. Horrenbestez, komunikazio-gaitasun egokia izatea irakaslearen helburunik behinenetakoa da.

Irakaslearen komunikazio-gaitasunaz ari garenean, irakasleak komunikazio-egoeretan izan beharreko ezagutzatik, azturetatik eta trebetasunetatik harago doa (Fernández, 2000). Gaur egungo irakaslearen lana ez da kontzeptuen eta ezagutzaren transmisio soila, irakasleak gidatzaile dinamikoa izan behar du ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza eremuan. Hortaz, irakasleak era egokian komunikatzeko zer esan, eta batez ere, nola esan eta zer baliabide erabili horretarako izan behar du kontuan.

Irakasleak izan beharko lukeen komunikazio-gaitasunaren barnean ezagutza fonetiko, semantikoa eta sintaktikoa izatea garrantzizkoa da, baina bestelako eremuetan (testuan, diskurtsoan eta arlo soziolinguistikoa) ere irakasleak trebetasuna eta ezagutza izan beharko luke (Cenoz, 1996: 95).

Irakasleak berak izan beharreko komunikazio-gaitasuna, duen lana kontuan izanik, honela definitua izan da:

Estado de preparación general del maestro o profesor que garantiza el desarrollo exitoso de las tareas y funciones de la profesión en correspondencia con las exigencias de los participantes y de los contextos de actuación (Parra eta Más, 2008).

Puntu honetara iritsita, hausnartu beharreko galdera hurrengoa da: zer jarduera-eremu ditu irakasle batek bere lan-ibilbidean?

Tradizioari begiratu gero, jarduera-eremu gehienak, guztiak ez esatearren, ikasgelara mugatzen ziren; alegia, irakasleak ikasleari ezagutza ematen zion ikasgelan, eta irakasle-lanaren beste betebeharrak batzuk ahaztuta geratzen ziren, esaterako, ez ziren kontuan hartzen familiekiko elkarriketa ezta beste profesionalekin izan beharreko harremanak ere.

Irakasleen Euskalduntzea (Eusko Jaurlaritza, 1997) lanean zehazten denez, hiru jarduera-eremu bereiz ditzakegu irakaslearen komunikazio-gaitasunean, horrela, irakasleak izan beharreko komunikazio-gaitasuna hiru eremutan kontuan hartu beharko litzateke:



1. inudia. Irakasleak izan beharreko komunikazio-gaitasuna hiru jarduera-eremuetan.

Irakaslearen komunikazio-gaitasuna zabala eta konkretua izan beharko litzateke, bere komunikazio-gaitasuna era egokian komunikazio-ekintzara nahiz testuingurura moldatzeko. Nola ordea? Goazen, bada, atal bakoitzaren definizioa nahiz ezaugarriak ematera.

Hausnarketarekin hasleko irakasle orok, Haur Hezkuntzako, Lehen edota Bigarren Hezkuntzako irakasleek, Europako Erreferentzi Marko Bateratua azaltzen den euskarako C1¹ hizkuntza-maila izan behar dutela pentsatetik abiatzen gara.

1. C1 mailari nahiz gainerakoetxi dagokien informazio guztia aipatutako Europako Erreferentzi Marko Bateratua dago ikusgai.

C1 maila definitzen duten trebetasunak irakasleak bere lanean izango dituen testuinguruetara ekarri ditugu ondorengo taulan:

EREMUAK		Irakasle-irakaslea	Irakasle-irakasle adierazlea	Inleak irakasleak
AHOSKADA	Muturrezina	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da ikasleak ez ezertan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da ikasleak irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da ikasleak irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da ikasleak irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da zentzuak ez diren irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko.
	Eruberrera	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko.
DIAZKADA	Irakurketa	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko.
	Ukurrezina	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko. Gai irango da irakurketan ezin izango ematen ez den irakurketan irakurketa egiteko.

1. taula. Irakasleak izan behar duen komunikazio-gaitasunaren berri ematen da egunero dituen jardura-eremuetan.

Kontuan izan beharrekoa da taula horretan irakaslearen komunikazio-gaitasuna trebetasunetan eta hiru eremutan zehazten dela. Era berean, garrantzizkoa da ohartaraztea, lan honen hasieran esan den bezala, komunikazio-gaitasuna ezagutza linguistikoak ez ezik, beste gaitasun batzuek ere osatzen dutela eta taula honetan horren berri ere ematen da; izan ere, ikasle batek esaten duena ulertu behar baldin badu irakasleak, ezagutza linguistikoaz gain, ezagutza soziala ere izan behar du, aintzat hartu behar baititu ikasleak dituen izaera, jatorria, heldutasun-maila, ama-hizkuntza, etab.

6. Ondorioak

Irakasleak hasierako eta etengabeko prestakuntzan komunikazio-gaitasuna garatu behar du, berau baita izango dituen lanak eta enkarguak era egokian betetzeko oinarritzko kompetentzia.

Hortaz, irakasleak argi izan behar du komunikazio-gaitasuna ez dela gaitasun linguistiko hutsa, lan honetan zehar aipatutako zenbait ikerketek ere hala erakutsi digute (Canale eta Swain, 1983; Bachman, 1990; Celce-Murcia, Dörnyei eta Thurrell, 1995; Europako Erreferentzi Marko Bateratua, 2002). Hau da, sistema linguistikoak maneiatzeko bestelako trebetasunak (soziolinguistikoak eta pragmatikoak Europako Erreferentzi Marko Bateratuak dioenari jarraitzen badiogu) ere garatu behar ditu, hau era egokian erabili arte. Betiere, sistema linguistikoaren zati diren elementuak sistema komunikatibo oso baten barruan ulertu behar ditu. Beraz, adierazitako gaitasun linguistikoaz gain gainerako trebetasunak eta estrategiak garatu behar ditu egoera jakinetan komunikatzeko beharra sortzen zaion bakoitzean, ahalik eta era egokienean hizkuntza, ikuspegi zabal batean ulertuta, erabili ahal izateko.

Irakaslea hizkuntza formen esanahi sozialaz jabetu behar da orduan, hots, dagokion testuingurura edota eguneroko zereginetara bere hizkera edota idazkera moldatzeko eta egokitzeko gaitasuna lortu behar du Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan. Horrenbestez, artikuluan azaldu dugun bezala, irakaslearen komunikazio-gaitasuna bere jardueraren hiru testuingurutan zehaztu daiteke; izan ere, irakasleak izan behar duen komunikazio-gaitasuna neurtzeko orduan, hiru eremuotan arreta jartzea da egokiena. Horretarako, betiere, C1 hizkuntza-maila duela eta Eusko Jaurlaritzak IRALE programaren baimen irakaslearen euskalduntzerako aurkezten duen trebetasunen deskriptiotik abiatuta, irakaslearen komunikazio-gaitasunaren berri ematen duten adierazleak taula batean jami ditugu, bide zail hau leuntzen hasteko pauso bat ematearren.

Ondorioz eta bukatzeko, Littlewoodek 1986an esandakoa adiberra eman nahi dugu, non irakasleak eta ikasleak ordezkatuko luketen «bera eta bere entzulea»-ren papera:

Komunikatzailerik trebeena (...) ez da beti haren egitumak erabiltzen onena. Sarritan, bera eta bere entzulea aurkitzen diren egoera osoa prozesatzen, biek ordurako batean duten ezagutza (egoeraren ondorioz edo aurreko elkarrizketaren ondorioz, adibidez) kontuan hartzen eta bere mezua egokiro komunikatuko duten elementuak hautatzen trebatuen dagoen pertsona da (1986: 18 orr.).

3. ERANSKINA: PECHA-KUCHA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

	HOBETUNTZA FRANKO BEHAR DUEN LANA	LAN NAHIKOA	LAN ONA	LAN BIKAINA
TALDEKO LANA	Taldekideen artean ez da elkarlanik egon eta lanean nabaritzen da	Kohesio falta dago, lana taldekideen artean banatu dute baina oso zaila da tokatu zaien zatiaz hitz egitea.	Lana taldekideen artean banatu dute baina azken entsegua den artean egin dute.	Koordinazio eta komunikazio handia dago, guztiek tokatu zaien zatia ondo egin dute.
EDUKIAK	Edukiak txarto hautatu dituzte, txarto antolatuta daude eta errepikatuta	Edukiak egokiak dira, baina edukiak hobeto antolatu daitezke	Edukiak ondo aukeratu dituzte, ondo antolatuta daude eta ondo azalduta	Edukiak ondo aukeratu dituzte, ondo antolatuta daude eta ondo azalduta Aurkezpena
IRUDIA	Kolorea txarto aukeratu da, testu gehiegi, ikusteko arazoak.	Aurkezpena ondo ikusten da, baina itxusia da.	Argazkiak ondo aukeratu dira, testua orekatua da, ondo ikusten da.	Argazkiak ondo aukeratu dira, testua orekatua da, gainera, ikusten dena oso erakargarria da.
AHOZKO AURKEZPENA	Isilune handiak, testua falta da. Diapositibak nahasten dira.	Aurkezpena egokia da, baina denboretara egokitzeko arazoak. Ahozkerak arazoak.	Aurkezpen egokia, denboretara ondo egokituta, ahozkerak ona.	Aurkezpen egokia, denboretara ondo egokituta, ahozkerak ona. Gorpuzkerak, aurpegikerak eta keinuek diskurtsoari indarra ematen diote.

(Iturria: <http://www.slideshare.net/mvalverde/pechakuchas-en-accin>)

4. ERANSKINA: HAUR-HIZKERA LANTZEKO TESTUA ETA ARIKETA INDIBIDUALAK

4.1. IRAKURGAIA:

HAUR HIZKERA ZERTAN DEN

Euskarak bere eguneroko erabilpenari dagokionean baliabide ezberdinak ditu, horietako bat haur hizkera, edota haurrekin hitz egiteko orduan erabiltzen dugun hitz kode berezia daukagu. Ontsalaz, hitz hauen musika, soinua... helduen kodean erabiltzen ditugunak baino gozoagoak izaten dira, xamurragoak.

Helduaren eta haurren arteko komunikazioa modu hurbilago batez gauzatzea litzateke haur hizkeraren xedea . Haurrekin erabiltzen ditugun hitzak osatzeko orduan euskarak zenbait bide jorratzen ditu. Nire aldetik, hauek dira nabarmenduko nituzkeenak:

1.- Errepikapenak edo kakofoniak

Haurrari helduarekin gauzatzen duen komunikazioa hurbilagoa bilaka dakion, soinuen eta silaben errepikapena izaten da ohiko bideetako bat. Askotan, haurrak bere lehen hitzak ahoskatzeko egiten dituen soinu kakofonikoen imitazioan oinarritzen dira, eta hori dela eta, zenbait hitzek aldaketa nabarmena jasaten dute beren barneko egitura silabikoetan.

Adibidez: akiki egin (hautsiki egin), koxka egin (hozka egin), papatto (zapatoa), txintxin (dirua, txanpona), pitxitxi (katua), ninia (haur txikia), borronbila (bonbilla), purruna (puzkerra), kokoloa (txokolata), kikiak edo kikak (haurrari ateratzen zaizkion lehen hortzak), txitxia (jaka: haragia eta arraina), apapa (kalera atera), papo (akabo), popo (autoa), txalo-txalito (txalo egin), titia eman (bularra eman), mama (ura)...

2.- Onomatopeiak:

Onomatopeiak edo soinuen imitazioak leku zabala hartzen du euskaldunon haur hizkeraren alorrean. Askotan gainera, imitaziozko soinu horiek errepikatzen direnez gero, aurrekoekin

nahasi egiten dira. Hauek, seguru aski, izango dira haur hizkeraren barruan oinarritzkoenak. Beraien helburua haurren hizkera modu hurbilago, xamurrago batez lantzea izango litzateke, hau da, helduen mundu erreala haurren irudimenezko mundura hurbiltzea.

-1-

Adibideak oso ugariak dira. Ikus ditzagun horietako batzuk: tax-tax egin (jo egin), alolo, añoño, aioio (lo egin), ttaka-ttaka (haurren lehen pausoak), pa (musua), mumua (animalia), momorroa (zomorroa), plixti-plaxta (haurra uretan jostatzean), pipi egin (pixa egin), fufu (sua), punba-punba (haurra erortzean), ñañan egin (jan), ttuku-ttuku (txupetea xurgatzean), ttun-ttun (musika), ttakatan-ttakatan (korri egin), ttukun-ttakun (irentsi), dingili-dangala (haurra aurrera eta atzera ibiltzean), pirri-pirri (beherakoa), kulun-kulun (haurra kulunkatzean), pipia (txoria)...

3.- Bustidurak:

Hirugarren bide honek posibilitate ugari eskaintzen digunez gero, haur euskaldunekin erabilitako hizkera berezia horrela egindako hitzez beterik dago. Batzuk haur hizkerarako sortuak izan arren, helduen artean ere erabili egiten dira. Eman ditzagun adibide gisa, gurasoek eta bestelako senideek haurrekiko harremanetan erabilitako izen busti bereziak. Bestalde, esan beharra dago, bustidurak ez direla beti gertatzen haur hizkeran erabiltzeko aitzakiaz, zenbait euskalkik ere joera handia izaten baitute era guztietako bustidurak egiteko eta usu erabiltzeko. Aipatzekoak dira: aitta, aittona, amatto, ttikitto, pittitto, ttikia, gaxua, maittia, ttunttuna, pollita, papattittoak...

4.- Atzizki txikigarriak:

Jakina da atzizkiek gure arteko komunikazio-hizkuntzan hartzen duten erabilpen zabala, horregatik ez da bat ere harritzekoa, haurren hizkeran ere euskaldunok atzizki txikigarriez egiten dugun erabilpen sistematikoa, bai izen arruntekin: umetxo, aingerutxo, txoritxo, katutxo, eskutxo, zakurtxo, zapatatxo, aitatxo, amatxo, gizontxo, muttiko, neskaxa, haurtxo, zaldiko, gonatxo, pratatxo, edertxo, lilitxo, loretxo, sudurtxo, kakita, begitxoak...; eta baita izen nagusiekin ere. Atzizki txikigarrien bidez sorturiko izen nagusiak oso ugariak dira gure artean, eta horietako asko, haurtzaroko garaia urruti utzirik, helduen artean ere erabiltzen dira, berezko izenen itxura hartuz. Dena den, izen nagusiekin, hiru bide nagusi erabili izan ditugu:

Euskarazko txikigarriak (-txo, -txu, -ko, -ku...) erabiliz sortutakoak: Josexo, Juliantxo, Ramontxo, Patxiku, Pedrotxo, Begotxu, Juantxo, Maritxu, Jenotxo, Koruko, Ixiartxo, Karmentxu, Perutxo, Jontxu,

-2-

Gillenko, Mieltxo, Xabiartxo, Iñakitxu, Lontxo, Manueltxo, Pilartxo, Pernantxo, Petriko...

Erderazkoak (-ito, -ita,...) erabiliz sortutakoak: Iñaxito, Mañolito, Joanito, Patxikito, Joxeiñaxito, Iñaxita, Joxepita...

Euskarazkoak eta erdarazkoak nahasiz sortutakoak: Begoñitatxo, Joanitatxo, Pakitatxo...

Badakit haur hizkerari buruz oso iritzi kontrajarriak daudela. Batzuentzat soberako kodea den bitartean, besteentzat eman beharreko pausoa da. Nik azkenekoen artean kokatzen dut nire burua.

Gure bi semeak ttikiak izan zirenean, etxeko guztiok, bat ere pentsatu gabe, gure gurasoek gurekin erabilitako hitzak erabiltzeari ekin genion. Urte luzetan hitz haiek gure burutik ezabatuak izanak ziren, baina gertuko tratua iritsi zitzaigunean, inongo arrazonamendurik gabe, erabiltzeari ekin genion, gure aurrekoen jarrera inkontzienteki errepikatuz.

Egun batean, horretaz konturatu nintzenean, erabiltzen genituen hitzak biltzeari ekin nion, eta orduan konturatu nintzen zenbait taldetan bana zitezkeela. Hortik dator irakurle, oraintxe irakurri duzun sailkapena.

-3-

(Iturria: Joseba Aurkenerena,

http://www.kazeta.info/iritzia/Joseba_Aurkenerena/haurren-hizkera-zertan-den

4.2. JARDUERAK

Eman erantzuna honako galderari:

-Zergatik eta zertarako erabiltzen da haur hizkera?

-Zer era erabiltzen dugu haur hizkerako hitzak osatzean?

-Zer eremutan sartuko zenituzke honako hitzak? Markatu X batekin taulan:

HITZAK	EREMU SEMANTIKOA				
	JANARIAK	GORPUTZ ATALAK	PERTSONAK	TRESNAK	ANIMALIAK
Kukurruku					
Txin-txin					
Mamu					
Tirrin					
Txitxi					
Ñan-ñan					
Purrak					
Koko					

-Zer adierazten dute hurrengo ekintzak hauek?

Apatxin egin:

Aupa:

Dar-dar egin:

Irrist egin:

Apapa joan:

Kili-kili egin:

Kisk-kask egin:

Kuku egin:

Ñan-ñan egin:

Lolo egin:

Pa eman:

Plast eman:

Plisti-plasta ibili:

Pupu egin:

Tas-tas eman:

Txalo-pin-txalo egin:

Tuju-tuju egin:

Zintz egin:

5.ERANSKINA: IRAGARKIA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

	HOBETUNTZA FRANKO BEHAR DUEN LANA	LAN NAHIKOA	LAN ONA	LAN BIKAINA
EZAUGARRIAK	Mezua luzeegia edo laburregia da. Hartzaileak ezingo luke errepikatu	Mezuak errepikapen asko ditu (eslogana kenduta). Aurkezten dutenaren abantaila baino ez dute adierazten. Memorizazioa zaila da.	Mezua behar ez diren errepikapenak direla eta luzatu egiten da. Aurkezten dutenaren abantaila batzuk soilik aurkezten dira. Memorizazioa ez da oso zaila.	Kontzeptu asko esaldi, irudi eta soinu gutxitan adierazten dira. Erraz memorizatu daiteke eta aurkezten denaren abantailak berehala ikusten dira.
OSAGAIK	Mezuak ez du iragarkiaren osagairik.	Bi osagai falta dira.	Osagairen bat falta da.	Iragarkiak osagai hauek ditu: Eslogana Deskribapena Irudia
KONBENTZITZEKO BALIABIDEAK	Ez dago baliabiderik	Baliabide bakarra agertzen da	Pare bat baliabide agertzen dira.	Honako baliabideak agertzen dira: Kolore deigarria Irudi erakargarria Letra mota berezia Galdera eragilea
EGITURA	Ez du iragarkiaren egiturarik	Eslogana baino ez da agertzen	Eslogana eta irudi bat agertzen da	Egitura hau du: Hasierakoa

				Gorputza
				Eslogana

(Iturria: <http://dudiblog3ciclo.files.wordpress.com/2011/11/rc3babrica-de-evaluac3b3n-de-anuncio.pdf>, euskaratuta)

6.ERANSKINA: TESTUA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IDATZIKOA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

1. KOHERENTZIA:
 - ASMOA
 - ADIBIDEAK
 - ERREFERENTZIAK
 - IDEIEN AZALPENA
2. KOHESIOA:
 - TESTU MAILAKO LOTURA:
 - LOKAILUAK
 - ANTOLATZAILEAK
 - KOHESIO GRAMATIKALA:
 - TEMA/REMA
 - DEIXIA
 - ADITZEN DENBORAREN ARTEKO ERLAZIOA
 - KOHESIO LEXIKOA:
 - ERREPIKAPENA
 - ORDEZKAPEN LEXIKALA
3. ZUZENTASUNA:
 - ORTOGRAFIA ETA PUNTUAZIOA
 - IZEN MORFOLOGIA:
 - ERGATIBOA
 - MUGAGABEA
 - -TAK
 - ADITZ MORFOLOGIA
 - PERPAUSAK: SINTAXIA
 - EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK
4. EGOKITASUNA
 - TESTUA ETA TESTUINGURUAREN ARTEKO LOTURA
 - ERREGISTROA:
 - LEXIKOA
 - EGITURAK

7.ERANSKINA: GURASOEN ETA FAMILIEN ARTEKO HARREMANA: INFORMAZIOA
JASOTZEKO BIDEOA

<http://www.youtube.com/watch?v=dA1ogXCwHml>



8.ERANSKINA: GURASOENTZAKO GUTUNA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

	HOBEKUNTZA FRANKO BEHAR DUEN LANA	LAN NAHIKOA	LAN ONA	LAN BIKAINA
AURKEZPENA	Orbanez betea eta zikina	Orban batzuekin	Garbia eta orbanik gabea baina paper desegokia	Garbia eta orbanik gabea
IDATZIAREN EZAUGARRIAK	Ez da koherentea, ez du kohesiorik, egokitasun falta, zuzentasunaren aldetik ere akats nabarmenak	Badu egokitasuna (nori zuzendua dagoen kontuan hartzen dute) baina kohesio eta koherentzia aldetik ez da ondo ulertzen	Zuzentasunari dagokionez, hizkuntz aldetiko akats batzuk ikus daitezke.	Errespetatzen ditu koherentzia, kohesioa, zuzentasuna, eta egokitasuna
EGITURAKO ELEMENTUAK	Ez dira agertzen elementurik gehienak	Ez da agertzen ez helbidea, ez data.	Ez da agertzen ondoko zutabeko elementuren bat	Agertzen dira: Helbidea Data, Hartzailea Igorlea Agurrak Sinadura
ERREGISTROA	Lagunartekoa	Lagunartekoa baina agur formala	Formala, baina esapide desegoki batzuk	Erabat formala eta egokia, baita agurrak ere.

9. ERANSKINA: JARDUNALDIETAKO AURKEZPENA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

	HOBEKUNTZA FRANKO BEHAR DUEN LANA	LAN NAHIKOA	LAN ONA	LAN BIKAINA
TALDEKO LANA	Taldekideen artean ez da elkarlanik egon eta lanean nabaritzen da	Kohesio falta dago, lana taldekideen artean banatu dute baina oso zaila da tokatu zaien zatiaz hitz egitea.	Lana taldekideen artean banatu dute baina azken entsegua den artean egin dute.	Koordinazio eta komunikazio handia dago, guztiek tokatu zaien zatia ondo egin dute.
EDUKIAK	Edukiak txarto hautatu dituzte, txarto antolatuta daude eta errepikatuta	Edukiak egokiak dira, baina edukiak hobeto antolatu daitezke	Edukiak ondo aukeratu dituzte, ondo antolatuta daude eta ondo azalduta	Edukiak ondo aukeratu dituzte, ondo antolatuta daude eta ondo azalduta Aurkezpena
IRUDIA	Kolorea txarto aukeratu da, testu gehiegi, ikusteko arazoak.	Aurkezpena ondo ikusten da, baina itxusia da.	Argazkiak ondo aukeratu dira, testua orekatua da, ondo ikusten da.	Argazkiak ondo aukeratu dira, testua orekatua da, gainera, ikusten dena oso erakargarria da.
AHOZKO AURKEZPENA (Denbora eta diapositibak)	Testua falta da. Diapositibak nahasten dira.	Aurkezpena egokia da, baina denboretara egokitzeko arazoak.	Aurkezpen egokia, denboretara ondo egokituta, baina diapositiba gehiegi)	Aurkezpen egokia, denboretara ondo egokituta.
AHOSKERA	Eten luzeegiak edo bat ere ez Erritmo desegokia Artikulazio arazo	Eten luzeak / laburrak Erritmo desegokia Artikulazio arazo batzuk (afrikatuak,	Eten egokiak Erritmo egokia Artikulazio arazo batzuk (aditz bukaera eta ondorengo	Eten egokiak Erritmo egokia Artikulazio-arazorik ez

	larriak Entonazio desegokia	frikariak, dardarkariak, sudurkariak...) Entonazio egokia	txistukaria) Entonazio egokia	Entonazio egokia
GORPUZKERA, AURPEGIKERA ETA KEINUA	Zutik daude, tente, zurrun.	Mugitzen dira, baina mugimenduak oso bortitzak dira	Esatean keinuren bat egiten dute, aurpegikera moldatzen dute, baina keinuak serioegi daude, urduritasuna nabaritzen zaie.	Gorpuzkerak, aurpegikerak eta keinuek diskurtsoari indarra ematen diote.

10. ERANSKINA: AURKEZPENIK ONENAREN HAUTAKETA ARRAZOITUA EBALUATZEKO KONTROL-ORRIA (ARGUDIO-TESTUA).

KONTROL-ORRIA	BAI/EZ	IRADOKIZUNAK
Jasotzaileak konbentzitzeko xede argia du testuak		
Egitura argia du sarrera (iritzia), gorputza (argudiatzea) eta ondorioa		
Argudio mota ezberdinak era argian erabiltzen dituzte		
Lotura logikoa dago sarrera, argudioen gorputza eta ondorioen artean		
1. pertsonan idatzita dago		
Iritzia argi dago		
Iritzia defendatzeko argudioak argiak dira eta ondo garatuta daude		
Paragrafo bakoitzak ideia bakarra garatzen du		
Paragrafo bakoitza defedatzen duten ideiarekin erlazionatuta dago		
Paragrafoak ondo lotuta daude, eta oreka bat dago		
Testu-antolatzaileak ondo erabiltzen dituzte		
Puntuazioa egokia da		
Ez dago ortografia akats nabarmenik		
Ez dago akats morfosintaktiko nabarmenik		
Arrazoiak azpimarratzeko egitura sintaktiko egokiak erabiltzen dituzte		
Hiztegi egokia erabiltzen dute		

(Iturria:

<http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/competencias/lenguaspymes/DBH/I/RITZI-GUTUNA.pdf>)